

ALBE

BERTSO AGENDA


2022 / EKAINA - IRAILA




BALKOITIK BALKOIRA - MUNDIALA - JAIK - HITZAREN DANTZA

ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA
www.albe.eus

SARE SOZIALAK

 albe_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa
Algorta (Getxo)
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF



4 EKITALDIAK

13 BERTSOLARI TXAPELKETA
NAGUSIA

14 ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Bertso jira*
-  *Txapelketa*

EKAINA

23

EGUENA

EGIZUKO UMEEN
SAN JUAN SUA**20:00** ALGORTAKO SAN
NIKOLAS PLAZA**Bertsolariak:**

June DIAZ

Peio LAGO

Maialen LAGO

Aurtengo San Juan Suak bertsozko txinpartak aterako ditu San Nikolas plazan Egizurekin elkarlanean egindako ekitaldian. ALBEko bertsolari gazteak hantxe izango dira urteko egunik luzeena berotzen.

egizul



EKAINA

24

BARIKUA

BALKOITIK BALKOIRA

21:30 ALGORTAKO
PORTU ZAHARRA**Bertsolariak:**

Unai ITURRIAGA

Nerea ELUSTONDO

1999. urtean egin zen lehen aldiz Algortako Balkoitik Balkoira saioa San Nikolas plazan, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin.

Hurrengo urtetik aurrera Portu Zaharreko Etxetxu plazan egiten hasi zen.



2021ko Balkoitik Balkoira / albe.eus

EKAINA

25

ZAPATUA

ALBE EGUNA

11:00 URIBE KOSTA

Bazkaria: 20€

ALBE Eguna urtero ospatzen dugu garai honetan, Uribe Kostako herriren batean, eskolako belaunaldi gutziak batzeko asmoz.

Egun osoko egitaraua izaten da: goizean bertso-poteoa, eguerdian bertso bazkaria, arratsaldean bertso jardun luzea eta iluntzean, aurten, Leioako bertso saiora hurreratuko gara. Animatu zeu ere!



2021eko ALBEguna / albe.eus

EKAINA

25

ZAPATUA

LEIOAKO JAIAK

20:00 BULEBARRA

Aurten Leioako jaiak ekainaren 17tik 26ra izango dira.

Aspaldiko tradizioari eutsiz, aurten ere bertso jaialdi ederra egingo dugu, Leioako udalarekin elkarlanean.

Bertsolariak:

Alaia MARTIN

Amets ARZALLUS

Oihana IGUARAN

Aitor BIZKARRA

Gai-jartzailea: Xabi SAINZ DE LA MAZA



2019ko bertso jaialdia / albe.eus

EKAINA

26

ZAPATUA

SOPELAKO JAIK BERTSO SAIO FEMINISTA

12:00 TXOSNAGUNEA

Bertsolariak:

Naroa TORRALBA

Oihana BARTRA

Onintza ENBEITA

Saioa ALKAIZA

Gai-jartzailea: Miren LOIZAGA

Aurten Sopelako jaiak ekainaren 23tik uztai-
laren 3ra izango dira.

Jaialdi hau indarra hartzen ari da urtetik ur-
tera, Sopelako udalarekin eta jai batzordea-
rekin egiten dihardugun elkarlanari esker.



2019ko bertso jaialdia / albe.eus



Sopelako Udala

SOPELA
LARRABASTERRA
**JAI
BATZORDEA**

UZTAILA

2

ZAPATUA

SOPELAKO JAIK KUADRILLAKO SARI BANAKETA

20:00 TXOSNAGUNEA

Kuadrillen sari banaketan bertso saioa iza-
ten da aspalditxotik. Aurtengoan ere ez da
bertsorik faltako.

Bertsolariak:

Paule LOIZAGA

Oihan DIAZ

Unai MENDIBURU



2019ko sari banaketako saioa / albe.eus



Sopelako Udala

SOPELA
LARRABASTERRA
**JAI
BATZORDEA**

UZTAILA

13

EGUAZTENA

BERTSO JAIALDI MUNDIALA

19:00

ALGORTAKO MUXIKEBARRI

Bertso jaialdi esperimentalak, bere ibilbide luzean egundoko arrakasta izan duena.

Gaur egun, Muxikebarrin egiten dugu eta aretoa goraino betetzen jarraitzen dugu.

Gaia sekretua izan ohi da, baina pistak ematen ditugu beti. Adi egon gure sare sozialetan!

Gonbidapenak:

Muxikebarrin eta Romoko Kultur Etxean dagoeneko eskuragai.



Bertsolariak:

Maialen LUJANBIO

Andoni EGAÑA

Jone URIA

Sustrai COLINA

Igor ELORTZA

Alaia MARTIN

Aurkezlea: Unai MENDIBURU

UZTAILA

26

MARTITZENA

GORLIZKO JAIK

20:00

GORLIZ

Bertsolariak:

Saioa ALKAIZA

Andoni EGAÑA

Maddi Ane TXOPERENA

Aitor ETXEBARRIAZARRAGA

Gai-jartzailea: Beñat VIDAL

Tradizio eta arrakasta handiko bertso jaialdia, urtero Gorlizko kultur etxearekin eta Uribe Kostako Mankomunitatearekin elkarlanean egiten duguna.



UZTAILA

29

BARIKUA

ALGORTAKO JAIAK

13:00 KASINOKO PLAZA

Bertsolariak:

June DIAZ

Imanol URIA

Ekhiñe ZAPIAIN

Beñat GAZTELUMENDI

Gai-jartzailea: Beñat VIDAL

Aurten Algortako San Inazio jaiak uztailaren 28tik 31ra izango dira.

Indar handiz itzuliko dira bertsolariak Kasinoko bertso plaza mitokoan kantatzera.



UZTAILA

30

ZAPATUA

ALGORTAKO JAIAK

13:00 KASINOKO PLAZA

Bertsolariak:

Uxue ALBERDI

Paule LOIZAGA

Unai ITURRIAGA

Zehazteko

Gai-jartzailea: Jon AMEZAGA



UZTAILA

31

DOMEKA

ALGORTAKO BERTSO MARATOIA

13:00 KASINOKO PLAZA

Bertsolariak:

Aitor SARRIEGI

Etxahun LEKUE

Aitor MENDILUZE

Jone URIA

Gai-jartzailea: Mainer BARAÑANO

Maratoilariak:

Aitor MENDILUZE

Jone URIA



San Inazio egunarekin batera entzute handiko bertso saio bat heltzen da Algortako kale-tabernetara: BERTSO MARATOIA!

Eguerdiaren jaietako bertso saioarekin hasten da, ondoren herriko jatetxe batean bertso bazkaria, eta gero, hainbat bertso saio Algortako hamaikatxo taberna eta kale bazterretan, ordu txikietara arte.



ABUZTUA

4

EGUENA

ERROMOKO JAIK

21:00 TXOSNAGUNETIK
ABIATUTA

Erromoko jaiak uztailearen 31tik abuztuaren 7ra izango dira aurretik.

Bertso jira aspalditik egin ohi dugu, Erromoko Jai Batzordearekin elkarlanean.

Bertsolariak:

Unai MENDIBURU

Nerea IBARZABAL



ABUZTUA

12

BARIKUA

PORTU ZAHARREKO JAIAK

19:30 ETXETXU PLAZA

Algortako Portu Zaharreko jaiak abuztuaren 10etik 14ra izango dira aurten.

Bi bertso saio izaten ditugu Portu Zaharreko jaietan: plaza libreko bat eta Marmitako eguneko sari banaketakoa.

Bertsolariak:

Jone URIA

Joanes ILLARREGI



ABUZTUA

12

BARIKUA

GORLIZKO BALKOIRIK BALKOI SAIOA

20:00 ITSASBIDETIK
ABIATUTA

Bertsolariak:

Julio SOTO

Onintza ENBEITA



Dagoeneko egonkortu zaigun bertso saioa da Gorlizko balkoitik balkoirako hau, Uribe Kostako Mankomunitatearekin elkarlanean egiten duguna.

ABUZTUA

14

DOMEKA

PORTU ZAHARREKO JAIK MARMITAKO EGUNA

18:00 ETXETXU PLAZA

Bertsolariak:

Narora TORRALBA

Mikel ARRATE

Asier ALCEDO



Unai Mendiburu 2019ko jaietan / albe.eus



ABUZTUA

27

ZAPATUA

ERANDIOKO JAIK

19:00 MALEKOIA

Bertsolariak zehazten ari gara. Laster iragarriko ditugu izenak. Adi egon gure sare sozialei!

Erandioko plaza bertsoz jazten da urtero San Agustin jaietan, eta bertsozaleek ez dute inoiz huts egiten.

Erandioko Berbots Euskara taldearekin eta Udaleko euskara zerbitzuarekin elkarlanean egindako saioa duzu berau.



Narora Torralba 2019ko saioan / albe.eus



IRAILA

18

DOMEKA

HITZAREN DANTZA

11:00 ALGORTA

Bertsolariak:

Jon MAIA

Peio LAGO

Oihana IGUARAN

Bertsoa, herri musika eta dantza euskaren harian biltzen dituen egun osoko ekitaldia da Hitzaren Dantza.

Aurten kalera aterako gara berriz, Algortako bazterrak bertsoz, doinuz eta dantzaz betetzeko.

Egun osoko egitaraua prestatu dizuegu: goizean *Zazpi Jauzi* kalejira, herriko zazpi gunetan bertsoak, kantak eta dantzak zabalduko dituen.



2017ko Hitzaren Dantza / albe.eus

Eguerdian, bertso bazkaria San Nikolaseko pilotalekuan eta arratsaldean erromeria bertako plazan.

Bazkarian izena emateko adi gure sare sozialei!



2016an Villamonte plazan / albe.eus

IRAILA

24

ZAPATUA

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

19:00

ALGORTAKO
MUXIKEBARRI



2017ko txapelketako finala / EHBE

Oraindik ez dakigu zer bertsolarik kantatuko duten saio honetan, txapelketaren aurkezpen ofiziala ekainaren 22an izango delako baina dagoeneko badakigu nor izango diren ALBERen ordezkariak aurtengo Txapelketa Nagusian: Jone eta Imanol Uria Albizuri neba-arrebak.



Imanol eta Jone 2019an Algortan / albe.eus

Halabeharrez txapelketa batetik besterako lau urteko zikloa luzatuta, 2022ko udazkenean izango da Bertsolari Txapelketa Nagusia.

Irailaren 24an abiatuko da Getxon eta abenduaren 18an amaituko Iruñean.


Lurraldeetako txapelketetan eskuratu dute bertsolariek Txapelketa Nagusian izena emateko aukera.

2005etik finalak Barakaldoko BECen egin eta gero, tokiz aldatuko da: Iruñeko Nafarroa Arenak hartuko du lekukoa.

Dagoeneko badakigu zein izango diren Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartuko duten 40 bertsolariak.

Informazio gehiagorako, jo Bertsozale Elkartearen webgunera: www.bertsozale.eus

TXAPELKETAKO FINAL HANDIA



IRUÑEAN - Nafarroa Arenan
ABENDUAREN 18AN



Saio hauetako sarrerak, www.bertsosarrerak.eus atarian laster eskuragarri

13

BERTSO BAZKARIA 2022



ABRA SARIA 2022



SANTA ESKEA 2022



URIBE KOSTAKO TXAPELKETA 2022



